



Funtsezko Sozietateak

Gure produktua ekoizteko hainbat material behar ditugu eta kontuan hartuta ez dela tuper normal bat eta barrutik bere mekanismoa daramala, egite prozesua komplexuagoa da.



Beraz, ahalik eta produktu merkeagoak baina kalitate onarekin lortu nahi ditugu.

Horretarako materialak Txinan bertan erosiko ditugu. Txinako "Atinpel" fabrikarekin hitz egingo dugu tuperren zatiak fabrikatzeko, gero itxasontziz honera bidaliko dituzte eta gure transportistak gure fabrikara (Oiartzunen) ekarriko dizkigu guk montatzeko kontratatuko ditugun hainbat pertsonaren laguntzarekin (4-5).

Atinpel enpresarekin hitz egingo dugu nahiz eta tuperren pieza fabrikatzeagatik ordaindu, hilean saltzen den kantitate baten portzentai txiki bat emango diegu.

Baina hori guri eksklusibitatea emateagatik izango da, hau da, denbora laburrean ahalik eta gehien eta egoki fabrikatzeagatik.



Tuperrak internetetik eta herrialdeko supermerkatuetan salduko ditugu jakinda tuperra saltzea onartzen duen dendei salmenta bakoitzagatik portzentai bat eman behar diogula.

Beraz, alde batetik, web orrialde bat sortuko dugu online saltzeko eta produktuari publizitatea egiteko community manager batekin, instagram kontua sortuko dugu eta #tjhonsontdalavida -ekin lortu nahi duguna gure produktua zabaltzea da.



Hasieran produktua bakarrik Espainiatik salduko dugu. Baina irabazi ugariak izango bagenitun agian ondoko beste herrialde batzuei saltzea ideia ona dela pentsatu dugu.

Produktua banatzeko MRW enpresa kontratatuko dugu, fidagarria eta eroso iruditzen zaigulako.